

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

34/2020 Foru Agindua, otsailaren 17koa, baimentzen duena Erika Sagarzazu Camino andreak Zalduondo-Añana udal elkarteko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jarduteari uztea, hark eskatuta

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren martxoaren 19ko 60/2018 Foru Aginduaren bidez, Erika Sagarzazu Camino andrea izendatu zen bitarteko funtzionario gisa betetzeko Zalduondo-Añana udal elkarteko idazkari lanpostua, zeina hutsik baitago.

Zalduondoko Udalak idazkia bidali dio Arabako Foru Aldundiari, jakinarazteko funtzionario hark lanpostuan jarduteari uko egin diola, 2020ko otsailaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta udal elkarteak onartu duela uko egitea.

Aurretik azaldutako guztia ikusirik, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Erika Sagarzazu Camino andreak Zalduondo-Añana udal elkarteko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jarduteari utzaraztea, hark eskatuta.

Bigarrena. Lanpostua uzte horrek 2020ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Zalduondo-Añana udal elkarteari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA